

Donostia, 2021eko abuztuaren 3an

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Araneta Zinkunegik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikulua oinarri, ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeko arau proposamen hau aurkezten du, Udalbatzak azter dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia hiriak duen arazo handienetako bat da jende askok zailtasunak dituela etxebizitza bat eskuratzeko, oso garestia dela eta. Faktore askok eragiten dute hiriko etxebizitzaren prezioan, eta horietako bat pisu turistikoaren presentzia da.

Etxebizitza horiek, alde batetik, askoz ere errentagarriago ateratzen zaie jabeen turismorako erabiltzea iraupen luzeko alokairurako erabiltzea baino, eta, horren ondorioz, jabeek espektatiba handiagoak dituzte etxebizitzari prezio bat jartzeko orduan. Bestetik, aloka daitezkeen etxebizitzaren eskaintza gutxitzen du, eta horrek ere badu eragin prezioaren igoeran.

Beraz, gure ustez, etxebizitza eskuratzeko eta prezioei eustea erraztuko duten politikak sustatzen jarraitzeko, beharrezkoa da etxebizitza horien gaineko prezioa handitzea. Horregatik, proposatzen dugu % 10 handitzea etxebizitzak eta ohiko etxebizitzetako logelak turismorako alokatzeko lizentzien kostua.

Horiek horrela, honako ERABAKI HAUEK hartzea proposatzen diogu Donostiako Udalbatzari:

AURRENA:

Establezimendu eta lokaletan jarduerak irekitzeko eta haiek kontrolatzeko zerbitzuak emateko tasak arautzen dituen ordenantza fiskaleko ERANSKINA aldatzea, modu honetara:

Aurrez lizentziarik izan beharrik ez duten jarduerak:

150 m ² -tik 500 m ² -ra bitarteko establezimenduak	250 €
500 m ² -tik gorako establezimenduak	2.250,13 €
Ohiko etxebizitzako logelak erabilera turistikorako alokatzea	90,75 €

Etxebizitzak erabilera turistikorako alokatzea:	
150 m ² -ra arteko establezimenduak	272,25 €
151 m ² -350 m ² erabilgarriko establezimenduak	453,75 €

Aurrez lizentzia izan beharra duten jarduerak:

500 m ² -ra arteko establezimenduak	50 €
51 m ² -tik 150 m ² -ra bitarteko establezimenduak	150,00 €
151 m ² -tik 500 m ² -ra bitarteko establezimenduak	250,00 €
500 m ² -tik gorako establezimenduak	2.250,13 €

BIGARRENA:

1989ko uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituen) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea 2020ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau. Hartara, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtuko da, baldin erreklamaziorik aurkezten ez badute.

Sin.: Aitzole Araneta,

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea